LITERAKTUM

# LITERAKTUM

2022

Hitzen hiria

La ciudad de las palabras

**Azaroa** / Noviembre

14–27

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

donostia **kultura**

www.literaktum.eus

**PROGRAMA OROKORRA** / PROGRAMA GENERAL
6 - 23

**JARDUERA BEREZIAK** / ACTIVIDADES ESPECIALES
24 - 39

**ERAKUSKETAK** / EXPOSICIONES
40 - 47

**LITERAKTUM TXIKIA**
48 - 61

# LITERAKTUM 22

## Literatura eta zinema
## Literatura y cine

**Bestelako lengoaia eta diziplinekin elkarrizketan literaturara hurbiltzea da Literaktum jaialdiaren nortasun ezaugarria. Baita literatura irakurleen eta idazleen arteko topagune izatea ere.**

**Badira 70 urte Nazioarteko Zinema Astea sortu zela Donostian, bokazio zinematografiko eta komertzialarekin sortu ere. Donostia Zinemaldia 70. ediziora heldu da, sortu zeneko gogo bizi berberaz eta abiatu zenetik etenaldirik gabe. Urteurren hori aintzat hartuta, Literaktumek *Literatura eta zinema* izango du ardatz aurtengo edizioan.**

**Literaturak hitza du osagai nagusi, zinemak berriz, irudia baina biek partekatzen dute helburu bera: lengoaiaz haratago, emozio eta sentimenduak sentiaraziko dizkiguten istorioak kontatzea. Film bilakatu diren eleberriek beteko dute aurtengo programazioaren parte garrantzitsuena. Literaturatik zinemarako eraldaketan horretan, bi sorkuntza horien konparazioen zuzentasunaz hitz egingo dugu, zeren, ba al dago zer konparatu? Edo idazle batek dioen moduan, traizioa al da film bihurtzean eleberri bati gerta dakiokeen hoberena? Zer irabaz edo gal**

Acercarse a la literatura en diálogo con otros lenguajes y disciplinas es la seña de identidad del festival Literaktum, así como que la literatura sea un punto de encuentro entre público lector con creadoras y creadores.

Hace 70 años nació en San Sebastián la Semana Internacional de Cine con una vocación cinematográfica y también comercial. El Festival de San Sebastián ha cumplido este año su 70ª edición con el mismo entusiasmo con el que nació y sin interrupciones. Con esta efeméride presente, Literaktum tendrá como tema central, *Literatura y cine*.

La literatura tiene como ingrediente principal, si no único, la palabra, mientras en el cine, la imagen es su componente esencial. Sin embargo, literatura y cine comparten un mismo objetivo: contar historias que, más allá del lenguaje, nos hagan sentir emociones y sentimientos. Las novelas que se han convertido en películas ocuparán la parte más importante de la programación. En esa transformación de la literatura al cine hablaremos de la corrección de las comparaciones de estas dos creaciones porque, ¿hay algo que comparar? O como dijo recientemente una escritora,

**dezake eleberri batek film bilakatzean? Eta idazleak? Denek irakurtzen al dugu eleberri berbera? Beti al da hobea nobela? Ba al dira filmean pentsatuz idazten duten sortzaileak?**

**Idazle, gidoilari eta zinema zuzendariak izango ditugu galdera guzti hauei erantzuteko solasean. Lehenengoen artean, ibilbide luzea izan eta beren hainbat eleberri film bihurtuta ikusi dituzten Eduardo Mendoza eta Lorenzo Silva. Baita Jesús Carrasco edo idazle moduan *La señora March* lanarekin estreinatu berri den Virginia Feito ere.**

**Abdellah Taia idazle marokoarra *Salbazioko armada* eleberriaren idazle eta filmaren zuzendari moduan izandako esperientziaz arituko da. Gabriela Ybarra eta Ángeles González-Sinde, hurrenez hurren *El comensal* -en idazle eta zuzendaria ere izango dira literatura jaialdian eta baita Miren Gorrotxategi eta Jon Arretxe idazleak ere.**

***Literatura eta zinemaz* haratago, beren lan berriez arituko dira Héctor Abad, Isaac Rosa, María Oruña, eta baita Iban Zaldua ere, *Literaktumek aurkezten du* atalean.**

¿la traición es lo mejor que le puede pasar a una novela al convertirse en película? ¿Qué puede ganar o perder una novela al transformarse en película?, ¿y las escritoras y escritores? ¿Leemos todos la misma novela? ¿Siempre es mejor la novela? ¿Hay creadoras y creadores que escriben ya pensando en la película?

Contaremos con escritoras y escritores, guionistas y directoras y directores de cine para responder a todas estas cuestiones. Entre los primeros, Eduardo Mendoza y Lorenzo Silva, que cuentan con una larga trayectoria y han visto varias de sus novelas convertidas en películas, Jesús Carrasco o Virginia Feito que acaba de estrenarse como escritora con *La señora March*.

El creador marroquí Abdellah Taia hablará de su experiencia como escritor y director de *El Ejército de Salvación*. Gabriela Ybarra y Ángeles González-Sinde, escritora y directora de *El comensal* respectivamente, también estarán en el festival literario, así como Miren Gorrotxategi y Jon Arretxe.

Más allá de la literatura y el cine, Héctor Abad, Isaac Rosa, María Oruña, e Iban Zaldua hablarán de sus nuevos trabajos en la sección *Literaktum presenta.*

**98ko belaunaldiaren adierazgarri, Pío Baroja jaio zela 150 urte beteko dira aurten. Erakusketa batek eta Soledad Puértolas eta Luis Antonio de Villenaren arteko solasaldiak ekarriko digute gogora idazle donostiarra. Juan San Martin sortu zela ere, 100 urte bete dira ekainean. Oier San Martin semeak azalduko dizkigu aitak euskal literaturaren inguruan eginiko ekarpenak.**

**Erakusketak, antzerkia, bertso saio literarioa, errezitaldi musikatua, eta baita Zinemaldiaren Donostia Sarien inguruan Katixa Agirrek idatzitako lana ere izango dira Literaktumen. Donostia Hiriko Kutxa Literatura Sariak, Etxepare Euskal Institutuaren eskutik izango dugun poesia irakurketa musikatuak eta mahai inguruak, eta James Joyceren Ulisesengan inspiratutako afariak ere osatuko dute programa, haurrentzako jarduerez betetako Literaktum Txikia ahaztu gabe.**

**Erakunde eta kultur eragile anitzez osatutako sarean elkarlanean landutako proposamena da, helburu komuna ardatz hartuta: hiri osoan hedatzen den literatura festa.**

Este 2022 se cumplen 150 años del nacimiento de Pío Baroja, uno de los mayores exponentes de la generación del 98. Una exposición y un coloquio entre Soledad Puértolas y Luis Antonio de Villena nos recordarán al escritor donostiarra. También se cumplieron en el mes de junio 100 años del nacimiento de Juan San Martín. Su hijo Oier San Martín nos hablará de la aportación de su padre a la literatura vasca como escritor e impulsor de la misma.

Exposiciones, teatro, lecturas literarias acompañadas de versos y música, y la obra de Katixa Agirre sobre los Premios Donostia del Zinemaldia también estarán en Literaktum. El programa se completa con la gala de entrega de los Premios Literarios Kutxa Ciudad de San Sebastián, la lectura de poesía acompañada de música y mesa redonda de la mano de Etxepare Euskal Institutua y la cena inspirada en Ulises de James Joyce, sin olvidar a Literaktum Txikia lleno de actividades para el público infantil.

Se trata, por tanto, de una propuesta trabajada conjuntamente por una red de instituciones y agentes culturales, centrada en el objetivo común: una fiesta literaria que se extiende por toda la ciudad.



# Programa orokorra

# Programa general

**14**

**LITERATURA ETA ZINEMA**
LITERATURA Y CINE

## ***Jesús Carrasco***

***Intemperie***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Ana Merino***

**OKENDO K.E.**
**19:00 ES**

*Intemperie* Jesús Carrascok (Badajoz, 1972) idatzi zuen lehen eleberri da, 2013an idatzi ere. Ondoren argitaratu zituen, *La tierra que pisamos* (2016) eta *Llévame a casa* (2021).

Lehen lanarekin nazioarteko onarpena lortu zuen Carrascok. Lirismo handiko uneez zipriztindutako kontakizuna da *Intemperie*, non mutiko baten ihesa kontatzen duen, lehorteak zigortutako eta indarkeriak gobernatutako herrialde baten barrena.

Eleberrian oinarritutako filma zuzendu zuen 2019an Benito Zambranok.

Escrita en 2013, *Intemperie* fue la primera novela de Jesús Carrasco (Badajoz, 1972). Después llegaron, *La tierra que pisamos* (2016) y *Llévame a casa* (2021).

Su primer trabajo lo consagró como uno de los debuts más deslumbrantes del panorama literario. Un relato duro salpicado de momentos de gran lirismo en el que narra la huida de un niño a través de un país castigado por la sequía y gobernado por la violencia.

*Intemperie* fue llevada al cine en 2019 con Benito Zambrano como director.



**14**

## *Pello Lizarralde*

***Zuri-beltzetik argiantzara***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Beñat Sarasola***

ERNEST LLUCH K.E.
**19:00 EU**

Pello Lizarralde (Zumarraga, 1956) euskal literaturako ahots narratibo berezkoenetakoa da. Salmenta masiborik ez duen idazle izanagatik, aspalditik du irakurle-multzo fidela. 1984an argitaratu zuen estreinako nobela, *E pericoloso sporgersi*. *Zuri beltzean* eta 2020an bere azkenekoa, *Argiantza*, Euskadi Saria eskuratu zuena. Berriki, *Sastraka* (Erein, 2022) artefaktu literariorako narrazioak idatzi ditu. Solasaldi honetan Lizarralderen ibilbideaz arituko da autorea Beñat Sarasola idazlearekin. Lizarralderen literatur ideiak eta idazmoldea ezagutzeko aukera ezin hobea.

Pello Lizarralde (Zumarraga, 1956) es una de las voces narrativas más auténticas de la literatura vasca. Sin ser escritor de ventas masivas, tiene desde hace tiempo una masa fiel de lectores. En 1984 publicó su primera novela, *E pericoloso sporgersi*. *Zuri beltzean* y en 2020 su último trabajo, *Argiantza*, que obtuvo el Premio Euskadi. Recientemente ha escrito narraciones para el artefacto literario *Sastraka* (Erein, 2022). En esta tertulia el autor hablará sobre su trayectoria con el escritor Beñat Sarasola. Una oportunidad inmejorable para conocer las ideas literarias y el modo de escribir de Lizarralde.



**15**

**LITERATURA ETA ZINEMA**
LITERATURA Y CINE

## *Virginia Feito*

***La señora March***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Ylenia Benito***

**ERNEST LLUCH K.E.**
**19:00 ES**



Ingelesez idatzia, *La señora March* Virginia Feitoren (Madril, 1988) lehen nobela da, March anderearen azterketa psikologikoa aurkezten duen komedia kostunbrista feministaren kutsua duen thillerra. Elisabeth Moss aktore eta ekoizleak erosi ditu eleberria zinemara egokitzeko eskubideak. Virginia Feitok idatziko du gidoia eta Elisabeth Mossek antzeztuko du March anderea.

Escrita en inglés, *La señora March* es la ópera prima de Virginia Feito (Madrid, 1988), un thiller con tintes de comedia costumbrista feminista que nos presenta el estudio psicológico de la señora March. La actriz y productora Elisabeth Moss ha comprado ya los derechos para la adaptación de la novela al cine. Virginia Feito escribirá el guion y Elisabeth Moss interpretará a la señora March.

**16**

**LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU**
LITERAKTUM PRESENTA

## *María Oruña*

***El camino del fuego***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Mitxel Ezquiaga***

**TOMASENE K.E.**
**19:00 ES**

Nobela beltza idazten du María Oruñak (Vigo, 1976) eta *El camino del fuego* da idazle galiziarraren azken eleberria. Valentina Redondo tenientea eta Oliver bere lankidea dira berriro ere protagonista, *Los libros del Puerto Escondido* sagaren bosgarren atal honetan. Aurreko eleberrien kokaleku izan den Kantabriatik irten eta Eskozian kokatu ditu oraingoan, María Oruñak.

Mitxel Ezquiaga kazetariak María Oruña elkarrizketatuko du.

Escritora de novela negra, *El camino del fuego* es la última novela de la creadora gallega. María Oruña (Vigo, 1976) regresa con la teniente Valentina Redondo y su compañero Oliver. Esta quinta entrega de la saga de *Los libros del Puerto Escondido* se desarrolla en Escocia y no en Cantabria como es lo habitual.

El periodista Mitxel Ezquiaga entrevistará a María Oruña.



© Carlos Ruiz



## 16

**LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU**
LITERAKTUM PRESENTA

# *Iban Zaldua & MICE*

***Ipuina engainua da***

Aurkezpena eta irakurraldia musikarekin
Presentación y lectura con música

**VEA CLUB**
**19:00 EU**

*Gonbidapenak egunean bertan jaso ahal izango dira www.donostiakultura.eus-en eta Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko leihatiletan 11:30etik aurrera. Las invitaciones se podrán retirar en www.donostiakultura.eus y las taquillas del Teatro Victoria Eugenia y Teatro Principal el día del evento a partir de las 11:30.*

Propuesta que aúna lectura con música, en la que ambos autores intentan, a partir de los ecos musicales de las narraciones del nuevo libro de Iban Zaldua (San Sebastián, 1966), y aprovechando la habilidad de MICE (Eibar, 1986) para contar historias a través de sus melodías, dar una nueva dimensión a la experiencia literaria que propone dicha obra.

Irakurraldi musikatu bat da, zeinetan egile biak saiatuko baitira, Iban Zalduaren (Donostia, 1966) liburu berriko narrazioen oihartzun musikaletatik abiatuta, eta MICEk (Eibar, 1986) doinuen bitartez istorioak kontatzeko daukan abileziaz baliatuta, dimentsio berri bat ematen esperientzia literarioari.



**17**

**LITERATURA ETA ZINEMA**
LITERATURA Y CINE

## *Jon Arretxe & Carlos Vila*

***Toure detektibea***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Uxue Razquin***

**SAN JERÓNIMO ARETOA**
**Liburutegi Nagusia** / Biblioteca Central
**19:00 EU + ES**

Jon Arretxek (Basauri, 1963) idatzitako Toure detektibearen liburuen saga zortzi nobelek osatzen dute: *19kamera, 612 euro, Hutsaren itzalak*, *Estolda jokoak, Sator larrua, Ez esan ezer, Desfida zaitez eta Dortokaren begirada*. Arretxek ezin hobeto kontatzen du gure gizarteko sektore baztertuenen egoera. Gordintasun eta dramatismo handiko egoerak umorez eta baikortasunez samurtzen ditu. Espainiako ekoiztetxe batek eleberri horiek egokitzearen aldeko apustua egin du, eta espero da laster telebistan ikusteko aukera izatea, David Pérez Sañudok eta Carlos Vilak (A Coruña, 1977) garatutako telesail batean. Azken honek Jon Arretxerekin batera hitz egingo du saio honetan.

La saga de los libros del detective Touré, escritos por Jon Arretxe (Basauri, 1963) está compuesta por ocho novelas: *19 cámaras, 612 euros, Sombras de la nada, Juegos de cloaca, Piel de topo, No digas nada, Desconfía y La mirada de la tortuga*. Arretxe narra a la perfección la situación de los sectores más marginalizados de nuestra sociedad. Contrarresta las situaciones de gran crudeza y dramatismo con toques de humor y optimismo. Una productora española ha apostado por adaptar estas novelas, y se espera que pronto puedan verse en televisión, en una serie desarrollada por David Pérez Sañudo y Carlos Vila (La Coruña, 1977). Este último acompañará a Jon Arretxe en la charla.




© Asier Beltza

**18**

**LITERATURA ETA ZINEMA**
LITERATURA Y CINE

## *Eduardo Mendoza*

***El año del diluvio***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Olga Grande***

**IMANOL LARZABAL ARETOA (LUGARITZ)**
**19:00 ES**

**Gonbidapenak egunean bertan jaso ahal izango dira www.donostiakultura.eus-en eta Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko leihatiletan 11:30etik aurrera. Lugaritz K.E.ko leihatila jarduera baino ordu bete lehenago zabalduko da. Gehienez 2 gonbidapen pertsona bakoitzeko. Las invitaciones se podrán retirar en www.donostiakultura.eus y las taquillas del Teatro Victoria Eugenia y Teatro Principal el día del evento a partir de las 11:30. La taquilla de Lugaritz K.E. se abrirá una hora antes del inicio de la actividad. Máximo 2 invitaciones por persona.*

1975ean *La verdad sobre el caso Savolta* (Kritikaren Saria) lehen eleberri arrakastatsua argitaratu zuenetik, Eduardo Mendozak (Bartzelona, 1943) ibilbide literario sendoa eraiki du, eta baita erreferentziazko egile bihurtu ere narratiba espainiarrean. 2016ko Cervantes sariaren irabazlea, narrazio estilo erraza eta zuzena du eta bere istoriotan ezin falta sotiltasuna, ironia eta sarkasmoa. Mendoza bere eleberri gehien zinemaratuta ikusi dituen espainiar egileetako bat da. *La verdad sobre el caso Savolta, La cripta, Soldados de plomo, La ciudad de los prodigios* eta *El año del diluvio* dira zineman ikus daitezkeen bere lanak.



Desde la publicación de su primera y exitosa novela en 1975, *La verdad sobre el caso Savolta* (Premio de la Crítica), Eduardo Mendoza (Barcelona, 1943) ha construido una sólida trayectoria literaria, convirtiéndose en autor de referencia en la narrativa española. Premio Cervantes 2016, de estilo narrativo sencillo y directo, en sus tramas no faltan la sutileza, la ironía y el sarcasmo. Mendoza es probablemente uno de los autores españoles que más novelas suyas ha visto llevadas a la gran pantalla, como son: *La verdad sobre el caso Savolta, La cripta, Soldados de plomo, La ciudad de los prodigios* y *El año del diluvio*.

## 21

**LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU**
LITERAKTUM PRESENTA

# *Isaac Rosa*

***Lugar seguro***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Karmele Jaio***

**KUTXA KULTUR KLUBA**
**19:00 ES**



2022ko Biblioteca Breve Saria jaso duen, Isaac Rosaren (Sevilla, 1974) *Un lugar seguro* eleberriak harrapatu eta deseroso sentiarazten du irakurlea, eta ironiatik eta eztabaidatik egungo gizartearen ziurgabetasun-unea islatzen du. Isaac Rosak hausnarketa, ideiak eta esku-hartze sozialerako proposamenak bilatzen ditu beti. Desoreken aurrean jarrera kritikoa duen literatura konprometitua da Isaac Rosarena.

Literatura eta zinemari dagokionean, Isaac Rosaren hainbat eleberri zinemara eraman dituzte beste hainbeste zuzendarik, hala nola *El vano ayer*, *El país del miedo* eta *La mano invisible*.

Premio Biblioteca Breve 2022, *Un lugar seguro* de Isaac Rosa (Sevilla, 1974) es una novela que atrapa e incomoda y que refleja desde la ironía y la controversia el momento de incertidumbre de la sociedad actual. Isaac Rosa busca siempre reflexión, ideas y propuestas de intervención social. La suya es una literatura comprometida ante las urgencias y desequilibrios del mundo en que vivimos.

Isaac Rosa es además un autor que ha visto trasladadas al cine varias de sus novelas, como son: *El vano ayer, El país del miedo* y *La mano invisible*.

Antolatzaileak / Organizan
***Kutxa Kultur, Donostia Kultura***

**21**

**LITERATURA ETA ZINEMA**
LITERATURA Y CINE

## *Miren Gorrotxategi*

***33 ezkil***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Joanes Urkixo***

**SAN JERÓNIMO ARETOA**
**Liburutegi Nagusia** / Biblioteca Central
**19:00 EU**



© Alaitz Azkune

*33 ezkil* Miren Gorrotxategiren (Azpeitia, 1981) lehen eleberria da, urtebete lehenago, 2015ean Zubikarai saria irabazteari esker idatzitakoa hain zuzen. Prosa dotore eta arin batekin, Garizmendi baserriaren inguruan azaltzen den buru hezur baten aurkikuntzarekin abiatzen du nobela Gorrotxategik. Eleberri honetan oinarrituta, filma zuzendu zuen Imanol Rayo zinemagileak 2020an Joanes Urkixoren gidoairekin eta *Hil kanpaiak* tituluarekin.

Joanes Urkixok, filmaren gidoilariak, Miren Gorrotxategi, eleberriaren idazlea elkarrizketatuko du.

*33 ezkil* es la primera novela de Miren Gorrotxategi (Azpeitia, 1981), escrita gracias a la ayuda del premio Zubikarai que la joven novelista ganó en 2015. Con una prosa ligera y elegante, Gorrotxategi arranca su novela con el descubrimiento de un cráneo que aparece en los alrededores del caserío Garizmendi. Basada en este relato, el cineasta Imanol Rayo dirigió en 2020 la película *Hil kanpaiak* de cuyo guion se encargó Joanes Urkixo.

La autora de la novela, Miren Gorrotxategi, será entrevistada por el guionista de la película, Joanes Urkixo.

**22**

**LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU**
LITERAKTUM PRESENTA

## ***Héctor Abad Faciolince***

***Salvo mi corazón, todo está bien***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Leire Palacios***

**ERNEST LLUCH K.E.**
**19:00 ES**



© Ruven Afanador

Héctor Abad Faciolince (Medellín, 1958) istorio sakon, hunkigarri eta argigarrien kontalaria da. *Salvo mi corazón, todo está bien* azken eleberrian bikote ezkondua gotorleku setiatu bat bezala aurkezten du: barruan daudenek irten egin nahi dute, eta kanpoan daudenek sartu nahi dute.

Nobela berria aurkezteaz gain, Abad film bilakatutako bere bi lanez ere arituko da, Leire Palacios kazetariarekin, *El olvido que seremos* (2006), bere maisulanaz, non Kolonbian eraildako bere aitaren bizitza kontatzen duen eta izen bereko hirian kokatutako *Angosta* eleberriaz (2004).

Héctor Abad Faciolince (Medellín, 1958) es un narrador de historias profundas, conmovedoras y reveladoras. En su última novela, *Salvo mi corazón, todo está bien,* Abad habla sobre el matrimonio como una fortaleza sitiada: los que están dentro quieren salir, y los que están fuera quieren entrar.

Héctor Abad conversará además con la periodista Leire Palacios sobre sus dos novelas llevadas a la gran pantalla; la ya citada *El olvido que seremos* (2006) probablemente su obra maestra en la que narra la vida de su padre, médico defensor de los derechos humanos asesinado en Colombia, y *Angosta* (2004) situada en la ciudad ficticia del mismo nombre.

**22**

# *Juan San Martin eta Literatura*

***Oier San Martin***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Elixabete Garmendia***



**SAN JERÓNIMO ARETOA**
**Liburutegi Nagusia** / Biblioteca Central
**19:00 EU**

Juan San Martin eibartarra jaio zela 100 urte betetzen diren honetan, bere askotariko alderdi eta lanak ekarri dira gogora: etnografoa, argazkilaria, mendizalea, euskaltzaina, Arartekoa... Saio honetan bere semea Oierrek literaturarekin izan zuen harremana nabarmenduko du. Juan San Martin idazle eta euskal literaturaren bultzatzaile izan baitzen.

En este año, centenario del nacimiento del eibarrés Juan San Martin, se han recordado muchas de sus facetas y trabajos: etnógrafo, fotógrafo, montañero, miembro de la Real Academia de la Lengua Vasca, primer Ararteko (Defensor del pueblo del País Vasco)... En esta sesión su hijo Oier San Martin destacará la relación que tuvo con la literatura, como escritor e impulsor de la literatura vasca.

## 23

**LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU**
LITERAKTUM PRESENTA

### *Katixa Agirre*

***Zinema festa bat da. Enkontru ezinezko bat Zinemaldiaren 70. urteurrenean***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Ruth Pérez de Anucita***

**TABAKALERA**
**1 zinema aretoa** / Sala de cine 1
**18:00 EU**

**Gonbidapenak eskuragarri Tabakalerako informazio gunean eta www.tabakalera.eus-en. La invitaciones están disponibles en el punto de información de Tabakalera y en www.tabakalera.eus*

Miramar jauregia festa berezi baterako prestatzen ari da. Ez alferrik, Zinemaldia bere 70. urteurrena ospatzen ari da. Gonbidatu berezi samarrak bildu dira gaurko honetan, ordea. Bi ezaugarri dute denek komunean: Donostia Saria jaso izan dute inoiz eta hilda daude egun.

*Zinema festa bat da. Enkontru ezinezko bat Zinemaldiaren 70. urteurrenean*, Donostia Kulturak eta Euskadiko Filmategiak Donostia Zinemaldiaren laguntzarekin argitaratzen duten *Nosferatu bilduma*ren X. alea da.

El palacio de Miramar se prepara para una fiesta especial. No en vano, el Festival celebra su 70 aniversario. Hoy en cambio se han reunido invitados un poco especiales. Todos tienen dos características en común: han sido galardonados con el Premio Donostia y han fallecido.

*Zinema festa bat da. Enkontru ezinezko bat Zinemaldiaren 70. urteurrenean* de Katixa Agirre es el volumen número X de *Nosferatu bilduma* editada por Donostia Kultura y Filmoteca Vasca con la colaboración del Festival de San Sebastián.

Antolatzaileak / Organizan
***Euskadiko Filmategia, Donostia Kultura***

Laguntzailea / Colabora
***Donostia Zinemaldia***

© *Ainhoa Resano*



24

**LITERATURA ETA ZINEMA**
LITERATURA Y CINE

## *Gabriela Ybarra & Ángeles González-Sinde*

***El comensal***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Luisa Etxenike***

**SAN TELMO MUSEOA**
**19:00 ES**



© *Elena López de Lamadrid*

2016ko Euskadi Literatura Saria eta urte bereko Man Booker Internationaleko finalista, *El comensal* da Gabriela Ybarrak (Bilbo, 1983) eleberriaren generoan egin duen debuta. Egileak heriotzarekin eta familiarekin duen harremana ulertu nahi du, bi gertakariren bidez: ETAk aitona hil izana eta amaren heriotza. Material intimoz ehundutako nobela, zati autobiografiko eta kronika kutsuarekin.

2022an Ángeles González-Sindek (Madril, 1965) zuzendu du *El comensal* filma.



© *Inés Ybarra*

Premio Euskadi de Literatura 2016 y finalista del Man Booker International del mismo año, *El comensal* es el debut más que notable de Gabriela Ybarra (Bilbao,1983) en el género de la novela. Una obra en la que la autora trata de comprender su relación con la muerte y la familia, a través de dos sucesos: el asesinato de su abuelo a manos de ETA y el fallecimiento de su madre. Una novela tejida de materiales íntimos, con retazos autobiográficos y de crónica.

*El comensal* ha sido llevada al cine en 2022 con Ángeles González-Sinde (Madrid, 1965) como directora.

**24**

**SOLASALDIA**
COLOQUIO

## *Soledad Puértolas & Luis Antonio De Villena*

***Baroja y Yo***

Moderatzailea / Modera
***Joaquín Ciáurriz***

**ERNEST LLUCH K.E.**
**19:00 ES**



© *Leopoldo Pita*

Soledad Puértolas (Zaragoza, 1947) eta Luis Antonio de Villena (Madril, 1951) lagun zaharren arteko topaketa atsegina, Pío Baroja ezagutzera eramango gaituena, alde batetik, bere errealismo gupidagabearen azterketatik eta, bestetik, bere lirismo malenkoniatsutik. Bi autoreek Baroja oso presente egon zeneko bere bizitzako pasarteak ere gogoratuko dituzte, bai bere irakurketetan, baita gaur egun oraindik gogoan dituzten gertaeretan ere.

Un encuentro ameno entre dos viejos amigos, Soledad Puértolas (Zaragoza, 1947) y Luis Antonio de Villena (Madrid, 1951), que nos llevarán a conocer a Pío Baroja, por un lado, desde el análisis de su implacable realismo y, por otro, desde su lirismo melancólico. Ambos autores recordarán también pasajes de su vida en los que Baroja estuvo muy presente, tanto en sus lecturas como en acontecimientos vividos todavía hoy recordados.



25

**LITERATURA ETA ZINEMA**
LITERATURA Y CINE

## ***Lorenzo Silva***

***La niebla y la doncella***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Ruth Pérez de Anucita***

**KOLDO MITXELENA**
**19:00 ES**

Lorenzo Silva (Madril, 1966) nobela beltzaren maisua da, eta Bevilacqua sarjentuak eta Chamorro agenteak osatutako guardia zibil bikoteak protagonizatutako istorioengatik da ezaguna.

*El alquimista impaciente*, 2000ko Nadal Saria, eta *La niebla y la doncella* dira, hain zuzen ere, Bevilacquak eta Chamorrok antzezten dituzten eta zinemara eraman dituzten lanetako bi. *La flaqueza del bolchevique* da zinemara egokitu duten Lorenzo Silvaren hirugarren eleberria.

Maestro de la novela negra, Lorenzo Silva (Madrid, 1966) es conocido sobre todo por las historias protagonizadas por la pareja de guardias civiles compuesta por el sargento Bevilacqua y la agente Chamorro.

*El alquimista impaciente*, Premio Nadal del 2000, y *La niebla y la doncella* son precisamente dos de las obras que protagonizan Bevilacqua y Chamorro y que han sido llevadas al cine. *La flaqueza del bolchevique* es la tercera novela de Silva adaptada a la gran pantalla.

Antolatzaileak / Organizan
***Koldo Mitxelena Kulturunea***
***Donostia Kultura***



© *Arduino Vannuchhi*

**26**

**LITERATURA ETA ZINEMA**
LITERATURA Y CINE

## *Abdellah Taia*

***El Ejército de Salvación***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Patxi Zubizarreta***

**VEA CLUB**
**18:00 FR + ES**

Esan osteko itzulpena gaztelerara
Traducción consecutiva a castellano

*Gonbidapenak egunean bertan jaso ahal izango dira www.donostiakultura.eus-en eta Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko leihatiletan 11:30etik aurrera. Las invitaciones se podrán retirar en www.donostiakultura.eus y las taquillas del Teatro Victoria Eugenia y Teatro Principal el día del evento a partir de las 11:30.*



*© Abderrahim Annag*

Abdellah Taiak (Maroko, 1973) frantsesez idazten duen sortzaile marokoarrak, sei eleberri argitaratu ditu, horien artean Flore 2010 saria jaso zuen *Le jour du roi*. Karga autobiografiko handia dute Taiaren lanek zeinetan bere egia intimoa testu literario bihurtzen duen.

2006an *Salbazioko armada* argitaratu zuen, Marokoko tradizioa Europako kulturarekin bateratzen saiatzen den gazte baten ibilbidea, deserrotzea, eta aurrera egiteko nahia. 2013an, Abdellah Taiak, berak, zuzendu zuen izenburu bereko filma, zinema zuzendari izateko ametsa betez.

Patxi Zubizarreta idazle eta Taiaren hainbat lanen itzultzailea arituko da Abdellah Taiarekin elkarrizketan.

Escritor marroquí en lengua francesa, Abdellah Taia (Marruecos, 1973) es autor de seis novelas, entre ellas *Le jour du roi*, que recibió el premio Flore 2010. Con una gran carga autobiográfica en sus obras, Taia transforma su verdad íntima en texto literario.

En 2006 publicó *El Ejército de Salvación*, el itinerario de un joven que intenta armonizar la tradición marroquí con la cultura europea, el desarraigo con el deseo de salir adelante. En 2013, el propio Abdellah Taia dirigió la película del mismo título, cumpliendo así su sueño de ser director de cine.

Patxi Zubizarreta, escritor y traductor de varias de sus obras, conversará con Abdellah Taia.



# **Jarduera bereziak**
# Actividades especiales

# LITERATUR IKASTAROA
# CURSO DE LITERATURA

## 7 - 28

### *Zinemako kontaerak*
### *Relatos de cine*

***Ana Merino***

**OKENDO K.E.**
Astelehen + ostiral / Lunes + viernes
**11:00 - 12:30 ES**

100€

*+16 urte / años*

Izen-ematea / Inscripción
***donostiakultura.eus/ikastaroak***

Literatura eta zinema lotuta daude. Bi arteak batera doaz, "hizkuntza" ezberdinak erabiltzen badituzte ere. Literaturak hitza du material bakarra; zineman, hitzak, irudiak - bere osagai nagusia - eta musika konbinatzen dira.

La literatura y el séptimo arte establecen entre sí mutuas relaciones. Ambas artes caminan juntas, aunque utilicen diversos "lenguajes". El único material de la literatura es la palabra; en el cine se combinan palabras, imágenes – su componente principal – y música.

# LITERATUR IKASTAROA
# CURSO DE LITERATURA

**8 – 29**

## *Narratiba grafikoaren bidez generoari buruz hausnartzeko tailerra*
## *Taller de reflexión sobre género a través de la narrativa gráfica*

***Teresa Castro***

**INTXAURRONDO K.E.**
Asteartetan / Martes
**18:30 – 20:45 ES**

90€

*+16 urte / años*

Izen-ematea / Inscripción
***donostiakultura.eus/ikastaroak***

Fanzine bat egiteko tailer bat garatzea (argitalpen independente eta ilustratua), batez ere parte-hartzaileen istorioak kontatzeko, norberaren esperientziei garrantzia emateko eta bakoitzaren errealitatea izendatu eta gorpuzteko garrantziaz jabetzeko.

Desarrollo de un taller para la elaboración de un fanzine (publicación independiente e ilustrada) que cuente, principalmente, las historias de las personas participantes, dando relevancia a las experiencias propias y aumentando la conciencia de la importancia de nombrar y dar cuerpo a la realidad de cada una/o.

# BIDEO FORUMA
# VIDEOFÓRUM

**15**

## *Drácula (1958)*

***Terence Fisher***

**VOS**




Dinamizatzailea / Dinamizador
***Jonathan Sedeño***

INTXAURRONDO K.E.
**19:00 ES**

1958an Bram Stokerren obraren egokitzapenaren estreinaldiak Drakula kondearen irudiaren berpiztea ekarri zuen (ezin hobeto esan), baita protagonistaren irudigintza kolektiboa ere. Terence Fisherrek zuzendutako lana, Christopher Lee protagonistarekin, denboraz kanpoko translazio bat da, eleberriaren espirituarekiko leiala, Browning, Coppola edo Herzogek egindako beste hurbilketa batzuen gainetik.

El estreno en 1958 de la adaptación de la obra de Bram Stoker no solo supuso la resurrección (nunca mejor dicho) de la figura del conde Drácula, sino que también fundamentó la imaginería colectiva respecto al protagonista. La cinta dirigida por Terence Fisher con Christopher Lee de protagonista, es una traslación atemporal y fiel al espíritu de la novela, por encima de otras aproximaciones realizadas por Browning, Coppola o Herzog.

Laguntzailea / Colabora
***Ozzinema zinekluba***





# ERREZITALDI MUSIKATUA
# RECITAL MUSICADO

**15**

## *Historia de las cajas, las catástrofes, los secretos y los reinos*

***Jon Obeso & Joserra Senperena***

VEA CLUB
**19:00 ES**

**Gonbidapenak egunean bertan jaso ahal izango dira www.donostiakultura.eus-en eta Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko leihatiletan 11:30etik aurrera. Las invitaciones se podrán retirar en www.donostiakultura.eus y las taquillas del Teatro Victoria Eugenia y Teatro Principal el día del evento a partir de las 11:30.*

Bertrand H. Carpenteyren azken kontakizunaren errezitaldi girotu eta musikatua. Irratiko esperientzia zuzenean berreskuratzea da helburua, kontakizun horren giro poetikoa erreproduzitzea.

Joserra Senperena izango da pianoan, munduko gauzak deskubritzeko lanean bi anaien bizitzako pasarteen gainean, Jon Obesok idatzitako narrazioa laguntzen eta interpretatzen.

Recital ambientado y musicado del último de los relatos de Bertrand H. Carpentey. Se trata de rescatar en vivo la experiencia radiofónica, de reproducir la atmósfera poética de dicho relato.

Joserra Senperena acompaña e interpreta al piano la narración de los distintos episodios en las vidas de dos hermanos, en la tarea de descubrir las cosas del mundo, con textos de Jon Obeso.

# BISITA GIDATUA+ KONTZERTUA+ SOLASALDIA

VISITA GUIADA+ CONCIERTO+ TERTULIA

**17**

## *Odol tinta - Banpiroari omenaldia*

INTXAURRONDO K.E.
**ES**

**18:00 - Bisita gidatua** / Visita guiada

**18:30 - Ghost Number formato akustikoan** / en acústico

**19:00 - Solasaldia** / Tertulia
**Borja Crespo & Josune Urrutia**

*Odol tinta-Banpiroari omenaldia* erakusketaren inguruan, bisita gidatua egingo dute Borja Crespo komisarioak eta Josune Urrutia ilustratzaileak, Musikagela zerbitzuaren eskutik, Ghost Number taldearen emanaldi laburra izango da eta jarduera amaitzeko, solasaldia.

En torno a la exposición *Odol tinta – Banpiroari omenaldia*, Borja Crespo, comisario de la muestra, y Josune Urrutia, ilustradora participante, realizarán una visita guiada a la que seguirá un breve concierto de Ghost Number, de la mano del servicio Musikagela. La actividad finalizará con un coloquio sobre la exposición.

Laguntzailea / Colabora
***Musikagela***

# MAHAI INGURU ETA POESIA IRAKURKETA MUSIKATUA

Zubi hizkuntzarik gabe itzultzearen garrantziaz eta autore eta itzultzaileen arteko harremanez hausnartuko dute saio honetan Itxaro Borda, Ainara Maya eta Leire Martinez de Marigorta itzultzaileek eta Mireia Callafell eta Miren Agur Meabe idazleek, Aiora Jaka gidari dutela. Izan ere, hiru itzultzaileek poesia itzultzeko egonaldia egin dute Etxepare Euskal Institutuak Institut Ramon Llull eta Consello da Cultura Galega erakundeekin batera antolatutako proiektuaren baitan. Egonaldi hori lanerako, inspiraziorako eta elkartrukerako baliatu dute itzultzaileek eta aukera izan dute komunikazio zuzena izateko itzuli dituzten poetekin. Jatorrizko poemak nahiz horien itzulpenak ere izango ditugu entzungai idazle eta itzultzaileen ahotsetan, musika lagun, Alex Haroren eskutik.



© CCVA-Rut Solè

**18**

## *Itzultzaile Ibiltariak*

***Itxaro Borda, Ainara Maya, Leire Martinez de Marigorta, Mireia Callafell, Miren Agur Meabe***

Moderatzailea / Modera
***Aiora Jaka***

**OKENDO K.E.**
**19:00 EU + ES**

Las traductoras Itxaro Borda, Ainara Maya y Leire Martinez de Marigorta y las escritoras Mireia Callafell y Miren Agur Meabe, moderadas por Aiora Jaka, debatirán sobre la importancia de la traducción sin lengua intermediaria y sobre la relación entre quienes traducen y quienes escriben. Las tres traductoras han participado en una estancia para traducir poesía, dentro de un proyecto organizado por Etxepare Euskal Institutua junto con Institut Ramon Llull y Consello da Cultura Galega. Dicha estancia ha servido para el trabajo, la inspiración y el intercambio. En la misma han tenido la oportunidad de estar en relación directa con las poetas que traducían. En el acto escucharemos los poemas originales y sus traducciones de la voz de sus protagonistas, escritoras y traductoras, acompañadas por la música de Alex Haro.

Antolatzaileak
***Etxepare Euskal Institutua, Donostia Kultura***
Laguntzailea / Colabora
***Musikagela***

# IPUIN KONTALARIEN VIII. MARATOIA

19

## *Maitasunaren materia(lak)*

***Mireia Delgado + Uribarri Atxotegi***

SAN JERÓNIMO ARETOA
**Liburutegi Nagusia** / Biblioteca Central
**18:00 EU**

*+15 urte / años*

Antolatzaileak / Organizan
***Galtzagorri Elkartea, Donostia Kultura***

# SARI BANAKETA
# ENTREGA DE PREMIOS



19

## *Donostia Hiriko Kutxa Literatura Sariak*

ANTZOKI ZAHARRA / TEATRO PRINCIPAL
**19:30 EU + ES**

Donostia Hiriko Kutxa Literatura Sarien 56. edizioaren sari-banaketa ekitaldia, musika, antzerkia, zinema, dantza eta literaturaren arteko elkarrizketa amultsua izango da. Aurten, gainera, literatur ibilbide oso bati eskainitako sariak eta omenaldi hunkigarri batek ere izango dute tokia galan. Ekitaldi  berezia.

La ceremonia de entrega de premios de la 56ª edición de los Premios Literarios Kutxa Ciudad de San Sebastián será un diálogo afectuoso entre música, teatro, cine, danza y literatura. Este año, además, la gala acogerá premios otorgados a toda una trayectoria literaria y un homenaje muy emotivo. Un acto especial.

Antolatzaileak / Organizan
***Kutxa Kultur, Donostia Kultura***

# ANTZERKIA
TEATRO

## 20

## *La lluvia amarilla*

***Corral de García***

IMANOL LARZABAL ARETOA (LUGARITZ)
**19:00 ES**

10€

***www.donostiakultura.eus/sarrerak***

*La lluvia amarilla* Andrés de Casa Sosasen bakarrizketan oinarritzen da, Ainielleko azken biztanlea, 1970ean erabat biztanlerik gabe geratu zen Huescako Pirinioetako "benetako" herria. Bertan eman zuen azken gauean, bere bizitzako azken gauean, bere agonia eta bakardade luzea, Ainielleren agonia eta bakardade bera izango dira. Julio Llamazaresen izen bereko eleberrian oinarritutako ikuskizuna.

*La lluvia amarilla* se centra en el monólogo de Andrés de Casa Sosas, el último habitante de Ainielle, un pueblo "real" del Pirineo Oscense que quedó completamente deshabitado en 1970. Durante su última noche en el pueblo, la última noche de su vida, narra su larga agonía y soledad, la misma agonía y soledad de Ainielle. Un espectáculo basado en la novela homónima de Julio Llamazares.



# **HITZALDIA**
# CONFERENCIA

**23**

## ***Lumineszenteak***
## ***Luminiscentes***

**OKENDO K.E.**
**19:00 EU**

Igone Mariezkurrena kazetariaren eta Irantzu Pastor argazkilariaren proiektuaren aurkezpena. Emakumeen aurkako indarkeria ikusezinak bistaratzeko eta erresilientzia adibideak ezagutarazteko egitasmoa. Egunotan Okendo K.E.n ikusgai dagoen erakusketa ere, *Lumineszenteak* proiektuaren parte da.

La periodista Igone Mariezkurrena y la fotógrafa Irantzu Pastor presentarán el proyecto *Luminiscentes.* Un proyecto para dar luz a formas de violencias invisibles contra las mujeres y a ejemplos de resiliencia. La exposición que estos días se puede ver en Okendo K.E. es también parte de ese amplio proyecto.



# ANTZERKI IRRATIA
RADIOTEATRO

## 25

## *Desolación,* Gabriela Mistral.

***Inko Martin***

TOMASENE K.E.
**19:00 ES**

Gabriela Mistral Literatura Nobel saridunaren *Desolación* lanaren argitalpenaren 100. urteurrena dela eta, idazle txiletarraren lan gailenetako baten hainbat poema soinu-fikziora egokituko dira antzerki irrati saio honetan.

Con motivo del 100 aniversario de la publicación de *Desolación* de Gabriela Mistral, Premio Nobel de Literatura, en este radioteatro se adaptarán a la ficción sonora algunos de los poemas de una de las obras cumbre de la escritora chilena.

Gidoilari eta zuzendaria / Guion y dirección
***Inko Martin***
Soinu teknikariak / Técnicos de sonido
***Mikel Cerezo, Eneko Yaben***
Aktorea / Actor
***Santi Calzada***









# LITERATUR SOLASALDIA
## TERTULIA LITERARIA

25

### *Ulises 100 años*

Dinamizatzailea / Dinamizadora
***Slawka Grabowska***

**GASTRONOMIAZKO EUSKAL ANAIARTEA**
COFRADÍA VASCA DE GASTRONOMÍA
**Andereño Elvira Zipitria, 2**
**19:30 ES**

100 urte betetzen dira James Joyceren *Ulises* lehen aldiz argitaratu zela, errespetua ematen duen liburua. Solasaldian, James Joyceren klasiko moderno honi garai hartako ohituren ikuspegitik begiratuko diogu, eta arreta berezia jarriko diogu janariari. Gero, afari literariorako lekua erreserbatu duten pertsonek, liburuan inspiratutako platerak dastatu ahal izango dituzte. Gau bikaina Joyceren Irlanda dastatzeko.

Se cumplen 100 años de la publicación de *Ulises*, un libro que infunde respeto. En la tertulia miraremos a este clásico moderno de James Joyce desde la perspectiva de las costumbres de la época, con especial atención a la comida. Y es que al finalizar, las personas que hayan reservado plaza para la cena literaria, podrán degustar platos inspirados en el libro. Una noche perfecta para saborear la Irlanda de Joyce.

# AFARI LITERARIOA

## CENA LITERARIA



**25**

## *Cena con James Joyce*

Dinamizatzailea / Dinamizadora
***Slawka Grabowska***

**GASTRONOMIAZKO EUSKAL ANAIARTEA**
COFRADÍA VASCA DE GASTRONOMÍA
**Andereño Elvira Zipitria, 2**
**21:00 ES**

30€ (Plaza mugatuak / Plazas limitadas)

Izen-ematea / Inscripción
***www.donostiakultura.eus***

James Joyceren *Ulises* obraren argitalpenaren mendeurrenean, bere orrietan agertzen diren platereetan inspiratutako afari literario bat proposatzen da. Gastronomiazko Euskal Anaiartean gauzatuko da afari hau eta bertan plater hauek ahal izango dira dastatu: Mary Patrick ahizparen ilar-zopa txupitoa, perretxiko salteatuak baratxuriarekin eta tipularekin, txerri eskabetxatua limoiarekin eta arrozarekin, eta, amaitzeko, aranak natillekin. Literatura eta gastronomia, uztarketa ona.

En el centenario de la publicación de la obra *Ulises* de James Joyce, se propone una cena literaria inspirada en los platos que aparecen en sus páginas. La Cofradía Vasca de Gastronomía será el escenario de esta cena en la que se podrá degustar: txupito de sopa de guisantes de la hermana Mary Patrick, setas salteadas con ajo y cebolla, cerdo escabechado con limón y arroz, y para finalizar ciruelas con natillas. Literatura y gastronomía, buen maridaje.

Laguntzaile / Colabora
***Gastronomiazko Euskal Anaiartea***

# ERAKUSKETARA BISITA GIDATUA

VISITA GUIADA A LA EXPOSICIÓN



26

## *Rikardo Ugarte, Julia Otxoa eta Urko Ugarte, sendi bat artearen inguruan*

## *tres caminos que convergen*

***Julia Otxoak gidatutako bisita***

***Visita guiada por Julia Otxoa***

OKENDO K.E.

**Erakustaretoa** / Sala de exposiciones

**11:00 ES**

Literatura eta irudiak. Julia Otxoa erakusketaren ibilbidea egin eta, halaber, erantzun bila joango da: nola batu poesia eta arte grafikoak? Zein da Julia Otxoaren literaturaren elkarrizketa bere sormen plastikoarekin? Eta alderantziz? Eta zein da bere erakusketa-kideekin, Ricardo Ugarte eta Urko Ugarterekin, egiten duen elkarrizketa? Julia Otxoaren obran diziplinen arteko mugak ezabatzen dira.

Literatura e imágenes. Julia Otxoa hará un recorrido por la exposición y, a su vez, una búsqueda de respuestas: ¿cómo se aúnan poesía y artes gráficas? ¿Cómo dialoga la literatura de Julia Otxoa con su creación plástica? ¿Y al revés? ¿Y con las obras de sus coexpositores, Ricardo Ugarte y Urko Ugarte? Los límites de las disciplinas se borran en la obra de Julia Otxoa.

# BERTSO SAIO LITERARIOA

**26**

## *Faith*

***Lander Garro & Andoni Egaña & Eli Pagola***



LOIOLA K.E.
**19:00 EU**

Bertso saio literarioan idazle batek kantuan jarriko ditu bi bertsolari. Lander Garroren aginduetara, bat-batean arituko dira Andoni Egaña eta Eli Pagola bertsolariak. Idazleak *Faith* bere obraren pasarte literarioak irakurri ondoren, hari loturiko gaiak proposatuko dizkie bertsolariei. Hiru autoreen arteko elkarlana izango da saioa: hiru ahots elkarlanean. Erregistro guztiak lantzeko ahalbidea ematen duena: umorezkoa, poetikoa, narratiboa, akziozkoa, dialektikoa...

Un escritor y dos bertsolaris: Lander Garro, Andoni Egaña y Eli Pagola. Tras la lectura de algunos pasajes literarios de su novela *Faith*, Garro propondrá a los bertsolaris temas relacionados con los mismos. Tres autores, tres voces en colaboración en un programa que conjuga humor, poesía, narrativa, acción, dialéctica...







# **Erakusketak**
# Exposiciones

## SASTRAKA
MALEZA

*Sastraka / Maleza* lau artisten elkarlanaren emaitza da: Pello Lizarralde idazlea, Jose Ignacio Agorreta margolaria, Imanol Ubeda musikaria eta Imanol Rayo zinemagilea. Erakusketa ezinezko bidaia bat da. Heriotzaren kontzientzia, apur bat bada ere, izan orduko, gero eta maizago harrapatzen gaitu iraganera itzultzeko bidea hartzeak. Eta itzuli egin behar jakiteko bidearen buruan itzalak eta dezepzioa besterik ez dagoela eta irtenbideren bat bilatzera behartuta zaudela.

*Sastraka / Maleza* es el resultado de la colaboración de cuatro artistas: el escritor Pello Lizarralde, el pintor José Ignacio Agorreta, el músico Imanol Ubeda y el cineasta Imanol Rayo. La exposición es un viaje imposible. En cuanto tomamos conciencia, por pequeña que sea, de la muerte, se apodera de nosotros con mayor frecuencia el deseo de tomar el camino que nos lleva al pasado. Y debemos volver para comprobar que al final de ese camino solo nos esperan las sombras y la decepción, y que estamos obligados a buscar una salida.

**ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN**

**ERNEST LLUCH K.E.**

**Irailaren 30etik azaroaren 18ra**

**Del 30 de septiembre al 18 de noviembre**



Astelehenetik ostiralera / De lunes a viernes
**10:00-14:00 / 16:00-20:30**

Larunbatetan / Sábados
**10:00-14:00 / 16:30-20:00**

## ODOL TINTA
BANPIROARI OMENALDIA

Zineman protagonista izan den literatura pertsonaia da Drakula eta bere inguruan sortutako unibertsoa, bertsioak, pertsonaiak, iruditeria…

Odol-xurgatzaile pertsonaia mitikoa, bere erotismo eta misteriozko aureola, oso presente egongo da Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astearen eta Fant Bilbaoren eskutik datorren erakusketa honetan.

Horretarako, komikiari, ilustrazioari eta diseinuari lotutako 24 emakume artistek, bai ezagunak eta bai talentu berriek ere, fantasiazko generoaren funtsezko ikono horretan inspiratutako irudiak egin dituzte, Bram Stoker-en betiereko Drakula izenekoari begira.

Higinia Garay, Quan Zhou, Raquel Alzate, Laura Pérez, Josune Urrutia, Ane Pikaza, Irene Márquez eta Conxita Herreroren lanez

gain, Carla Berrocal, Natacha Bustos, Olga de Castro, Sara Bea Delgado, Genie Espinosa, Ana Galván, Susanna Martín, Raquel Meyers, Klari Moreno, Mamen Moreu, Mireia Pérez, Miriam Persand, Ana Oncina, Ana Belén Rivero, Clara Soriano eta Sandra Uveren arte banpiriko berriaz gozatu ahalko da.

Erakusketaren harira, azaroaren 17an Borja Crespo eta Josune Urrutia komisarioek dinamizatutako bisita gidatua, kontzertua eta solasaldia izango dira.

Una figura literaria protagonista en el cine ha sido Drácula y el universo en el que se incluyen versiones, personajes, imaginería…

El mítico personaje chupasangres, su aureola de erotismo y misterio, está muy presente en esta exposición que viene de la mano de la Semana de Cine Fantástico y de Terror y del Fant Bilbao.

Veinticuatro artistas de peso y talentos emergentes, con vinculación al cómic, la ilustración y el diseño, han realizado imágenes inspiradas en este icono esencial del género fantástico, con la mirada puesta en el sempiterno Drácula, creado por el escritor Bram Stoker.





Así, en *Odol tinta-banpiroari* omenaldia se podrá disfrutar del arte vampírico inédito de Higinia Garay, Quan Zhou, Raquel Alzate, Laura Pérez, Josune Urrutia, Ane Pikaza, Irene Márquez y Conxita Herrero, junto a las visiones de Carla Berrocal, Natacha Bustos, Olga de Castro, Sara Bea Delgado, Genie Espinosa, Ana Galván, Susanna Martín, Raquel Meyers, Klari Moreno, Mamen Moreu, Mireia Pérez, Miriam Persand, Ana Oncina, Ana Belén Rivero, Clara Soriano y Sandra Uve.

En torno a la exposición, el 17 de noviembre tendrán lugar una visita guiada, un concierto y un coloquio dinamizados por Josune Urrutia y Borja Crespo, comisaria y comisario de la muestra.

**ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN**

**INTXAURRONDO K.E.**

**Azaroaren 2tik 30era**

**Del 2 al 30 de noviembre**

Astelehenetik ostiralera / De lunes a viernes
**16:00-20:30**

Laguntzaileak / Colaboran
***Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea***
***Fant Bilbao***

# EMAKUME AINTZINDARIAK
# MUJERES PIONERAS

Itxaso Goitia artistak egindako nazioarteko eta garai ezberdinetako emakume aintzindarien ilustrazioak egongo dira erakusgai. Horien artean Edurne Pasaban alpinista euskaldunaren ilustrazioa, munduko hamalau zortzimilakoak igo dituen lehen emakumea; Mexikoko kultura eta feminismoaren ikonoa den Frida Kahlo margolari mexikarrarena, edo Kenyako politikaria eta ekologista izan zen Wangari Maathai, Bakearen Nobel Saria jaso zuen lehen emakume afrikarrarena.

La exposición recoge ilustraciones de la artista Itxaso Goitia sobre mujeres pioneras en el ámbito internacional y de diferentes épocas. Podremos encontrar la ilustración de la alpinista vasca Edurne Pasaban, primera mujer en el mundo en coronar los catorce ochomiles; de la pintora mexicana Frida Kahlo, icono de la cultura de México y del feminismo internacional, o de la política y ecologista keniana Wangari Maathai, primera mujer africana en recibir el Premio Nobel de la Paz.

## ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

**AIETE K.E.**

**Azaroaren 8tik abenduaren 11ra**

**Del 8 de noviembre al 11 de diciembre**

Asteartetik ostiralera / De martes a viernes
**16:00-20:30**

Larunbatetan / Sábados
**10:00-14:00 / 16:30-20:00**

Igandetan / Domingos
**10:00-14:00**

Astelehen eta jaiegunetan itxita
Lunes y festivos cerrado



# **LUMINESZENTEAK**
# LUMINISCENTES

Erakusketa honek izen bereko liburua du oinarri eta diskurtso nagusietan lekurik ez duten emakumeen historiak biltzen ditu. Igone Mariezkurrena kazetariaren eta Irantzu Pastor argazkilariaren proiektua da.

Kontakizunen protagonistak bortizkeriazko giroetan bizi edo hazi dira, hala nola okupazio militar, pobretze, behartutako lekualdatze, genozidio edo asimilazio kulturaleko testuinguruetan. Egiturazko indarkeria horiek baina, emakumeen eguneroko bizitza baldintzatzen duten eta halako errekonozimendurik ez duten beste indarkeria sotilagoekin korapilatzen dira. Hain justu azken horiek atera nahi ditu argitara *Lumineszenteak* proiektuak.

Esta exposición se basa en el libro homónimo y recoge historias de mujeres que no tienen cabida en los discursos dominantes. Es un proyecto de la periodista Igone Mariezkurrena y la fotógrafa Irantzu Pastor.

Las protagonistas de los relatos viven o han crecido en contextos devastadores como la ocupación militar, el empobrecimiento, los desplazamientos forzados, los genocidios o la asimilación cultural. Esas violencias estructurales, sin embargo, se entrelazan con otras violencias más sutiles y menos reconocidas que condicionan la vida cotidiana de las mujeres. Precisamente esas variantes son las que el proyecto *Luminiscentes* pretende sacar a luz.

## ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

**OKENDO K.E.**
**Eraikin historikoa** / Edificio histórico

**Azaroaren 8tik urtarrilaren 18ra**

**Del 8 de noviembre al 18 de enero**

Astelehenetik ostiralera / De lunes a viernes
**10:00-14:00 / 16:00-20:30**

Larunbat, igande, jaiegun eta zubietan itxita
Cerrado sábados, domingos, festivos y puentes.



# PÍO BAROJA:
# LITERATUR POSTALAK
## POSTALES LITERARIAS

Pío Baroja Nessi idazlea (Donostia, 1872/12/28) jaio zenetik 150 urte igaro direla eta, haren jaioterriak erakusketa hau antolatu du, beste ekitaldi batzuen artean; bertan, haren liburuetako pasarte batzuk elkarturik agertzen dira bera bizi izandako edo bere liburuetan jasotako tokien gaur egungo argazkiekin; gainera, haren liburuen lehen edizioetako batzuk ere ikusgai daude.

Erakusketako argazkiak *Baroja & Yo* bildumako 26 liburuetako azalak eta barneko postalak ilustratzeko erabili ziren, zeinetan autore ezagun batzuek donostiar eleberrigilearekin duten literatura- edo bizi-harremana kontatzen duten.

Argazkia, testua eta helbidea dira postal baten hiru osagaiak; hiru osagai horiexek daude ikusgai erakusketa honetako irudietan, Pío Baroja malenkoniatsuaren urtarorik gogokoena, udazkena alegia, “uda motel, leun berantiar” hori, ate-joka dugun honetan.

Con motivo del 150 aniversario del nacimiento del escritor Pío Baroja Nessi (San Sebastián, 28/12/1872), su ciudad natal, dentro de otras actividades programadas, organiza esta exposición que reúne citas literarias conectadas con fotografías actuales de lugares donde vivió y/o ambientó sus novelas, así como una selección de primeras ediciones de sus libros.

Las fotografías que se exponen se utilizaron para ilustrar las cubiertas y postales interiores de los 26 libros que forman la colección *Baroja & Yo*, de Ipso Ediciones, en la que conocidos autores narran su relación literaria o vital con el novelista donostiarra.



Foto, texto y dirección son las tres partes de una tarjeta postal, los mismos elementos que contienen las láminas de esta exposición, que abre sus puertas en la estación preferida del melancólico Pío Baroja, el otoño, ese «verano lánguido, suave y tardío».

Koordinazioa / Coordinación
***Joaquín Ciáurriz***

Argazkiak / Fotografías
***Pedro Pegenaute***

Diseinu grafikoa / Diseño gráfico
***Tadeo Ciáurriz***

**ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN**

**ERNEST LLUCH K.E.**

**Azaroaren 22tik urtarrilaren 28ra**

**Del 22 de noviembre al 28 de enero**

Astelehenetik ostiralera / De lunes a viernes
**10:00-14:00 / 16:00-20:30**

Larunbatetan / Sábados
**10:00-14:00 / 16:30-20:00**





# LITERAKTUM 2022

## Hitzen hiria

### La ciudad de las palabras

**Azaroa** /Noviembre

## 02-27

# TXIKIA



**2-15**

**ILUSTRAZIO LEHIAKETA**
CONCURSO DE ILUSTRACIÓN

## ***Txano eta Oscarren abenturak*** / *Las aventuras de Txano y Oscar*



**AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA: AZAROAREN 2TIK 15ERA, HAUR LIBURUTEGI NAGUSIAN ETA KULTUR ETXEETAKO LIBURUTEGIETAN**
PLAZO Y LUGAR DE PRESENTACIÓN: DEL 2 AL 15 DE NOVIEMBRE EN LA BIBLIOTECA CENTRAL INFANTIL Y EN LAS BIBLIOTECAS DE LAS CASAS DE CULTURA.

6-12 urte bitarteko haurrentzako ilustrazio lehiaketa.
**Gaia:** *Txano eta Oscarren abenturak.*
Marrazkiak libre, pertsonala eta originala izan behar du.
Marrazteko inprimakia **donostiakultura.eus/haurrak** helbidean deskargatu edo liburutegietan jaso daiteke.

Concurso de ilustración para niñas y niños de 6 a 12 años.
**Tema:** *Las aventuras de Txano y Oscar.*
El dibujo debe ser libre, personal y original.

El impreso para realizar el dibujo se puede descargar en **donostiakultura.eus/haurrak** o recogerlo en las bibliotecas.

## 15

**IPUIN KONTAKETA ILUSTRATUA**
CUENTACUENTOS ILUSTRADO

### *Amona Tomaxa eta sagarra*

***Ixabel Agirresarobe & Mattin***

**TOMASENE K.E.**
**18:00 EU**

*+3 urte / años*

***Gonbidapenak: 5 egun lehenagotik dagokion kultur etxean (gehienez 4 gonbidapen pertsona bakoitzeko)** */ Invitaciones: desde 5 días antes en la casa de cultura correspondiente (máximo 4 invitaciones por persona)*
*casareskulturetxea@donostia.eus*

Hitza eta pintzela lagun, Amona Tomaxaren istorioak zuzenean marraztu eta kontatu egiten dituzte Ixabel Agirresarobek eta Iñaki Martiarena *Mattinek*.

Combinando un pincel y la palabra, Ixabel Agirresarobe e Iñaki Martiarena *Mattin* nos cuentan y dibujan las historias de la Amona Tomaxa.



## 15, 22

**ILUSTRAZIO TAILERRA**

### *Marraztu zinemako zure pertsonaia*

***Iosu Mitxelena***

**INTXAURRONDO K.E.**
**17:00 EU**

*7-12 urte / años*

Izen ematea (ekitaldia baino 5 egun lehenagotik) / Inscripción (desde 5 días antes del evento)
***intxaurrondoliburutegia@donostia.eus***



**18**

**IPUIN KONTAKETA MUSIKATUA**
CUENTACUENTOS MUSICAL

## *Basoko sekretuak*

***Amelie eta xirrikituen jostunek***

**LOIOLA K.E.**
**17:30 EU**

*+3 urte / años*

**Gonbidapenak: 5 egun lehenagotik dagokion kultur etxean (gehienez 4 gonbidapen pertsona bakoitzeko) / Invitaciones: desde 5 días antes en la casa de cultura correspondiente (máximo 4 invitaciones por persona)*
*loiolakulturetxea@donostia.eus*



Urtaroz urtaro, basoan gordetzen diren sekretu askotarikoak deskubritzen joango gara, urtaro bakoitzeko animaliak ezagutuz, eta haien istorioetan murgilduz.

Iremos descubriendo los diferentes secretos que se esconden en el bosque, y conoceremos y nos sumergiremos en las historias de los animales que aparecen cada estación del año.

**19**

**IPUIN KONTAKETA**
CUENTACUENTOS

## *Ipuin kontalarien VIII. Maratoia*

**SAN JERÓNIMO ARETOA**
**Liburutegi Nagusia** / Biblioteca Central

Saio bereziak, hainbat teknika eta baliabide erabiliz, haur eta helduentzat / Sesiones especiales, utilizando diversos recursos y técnicas. Para todos los públicos.

## *Aho bete jolas*

***Lurdes Gorostegi + Idoia Barandiaran***

**11:00 EU**

*2-4 urte / años*

## *Laminak Donostian (laminei buruzko ipuinak eta poemak)*

***Juan Kruz Igerabide***

**12:00 EU**

*5-9 urte / años*

## *Ganbaran aurkituko dudan altxorra*

***Iñaki Carretero***

**17:00 EU**

*7-12 urte / años*

## *Maitasunaren materia(lak)*

***Mireia Delgado + Uribarri Atxotegi***

**18:00 EU**

*Gazteak eta helduak / Jóvenes y adultos*

Antolatzaileak / Organizan
***Galtzagorri Elkartea, Donostia Kultura***



**19**

**HAUR ANTZERKIA**
TEATRO INFANTIL

## *Tunba, orro egiten besterik ez zekien lehoia*

***Didau Antzerki Faktoria***

AIETE K.E.
**17:00 EU**

*Denontzat / Todos los públicos*

**Gonbidapenak: 5 egun lehenagotik dagokion kultur etxean (gehienez 4 gonbidapen pertsona bakoitzeko) / Invitaciones: desde 5 días antes en la casa de cultura correspondiente (máximo 4 invitaciones por persona): aietekulturetxea@donostia.eus*





Urrutiko Afrikatik opari bat iritsi da: ipuin bat gordetzen duen egurrezko kutxa bat. Ipuin honek sabanako animalia ezberdinen elkarbizitza erakutsiko digu.

Desde la lejana África ha llegado un regalo: una caja de madera que guarda un cuento en su interior. Este cuento nos habla sobre la convivencia entre diferentes animales de la sabana.



**19**

**FAMILIAREKIN JOLASEAN**
ILUSTRATZAILEAREKIN LANTEGIA

## *Collagearekin ipuin triptikoa*

***Alaia Gaztelumendi***

GROS HAURTXOKOA
**17:00 - 18:30**

Izen ematea (ekitaldia baino 10 egun lehenagotik) / Inscripción (desde 10 días antes del evento)
***haurtxokoa_gros@donostia.eus***

*5 - 11 urte bitarteko haurrak heldu batekin*
*Niñas y niños entre 5- 11 años con una persona adulta acompañante.*

## *Txontxongiloak eta Txanogorritxuak*

***Maite Gurrutxaga***

INTXAURRONDO HAURTXOKOA
**17:00 - 18:30**

Izen ematea (ekitaldia baino 10 egun lehenagotik) / Inscripción (desde 10 días antes del evento)
***haurtxokoa_intxaurrondo@donostia.eus***

*5 - 11 urte bitarteko haurrak heldu batekin*
*Niñas y niños entre 5-11 años con una persona adulta acompañante.*

Antolatzaileak / Organizan
***Donostia Gazteria, Donostia Kultura***



LITERAKTUM *Txikia*

**19**

**HAUR ANTZERKIA**
TEATRO INFANTIL

## *Tartalo, gaztaren sekretua*

***Logela multimedia***



GAZTESZENA (EGIA)
**17:30 EU**

*+3 urte / años*

5€

***www.donostiakultura.eus/sarrerak***



Joxemielek kontatuko digu bere txoko magikotik, Tartalo gentilaren kondaira fantastikoa.
Tartalo mendian bizi den artzain erraldoia da, begibakarra. Gazta egilea da eta berak gordetzen du hain estimatua den gaztaren sekretua.

Joxemiel nos contará en directo desde su rincón mágico la fantástica leyenda de Tartalo, un pastor gigante que vive en el monte. Tartalo guarda el secreto del tan apreciado queso.

## 23

**HAURREN EGUN UNIBERTSALAREN 6. FESTA**
6ª FIESTA DEL DÍA UNIVERSAL DE LA INFANCIA

### *Ipuin kontalariak, musika, jolasak eta sorpresa ugari*

*Cuentacuentos, música, juegos y muchas sorpresas*

INTXAURRONDO K.E.
**18:00 – 19:00 EU + ES + ENG**

*6-8 urte / años*

Heldurik gabe / Sin adultos

Gonbidapenak / Invitaciones:
***donostiakultura.eus/haurrak***

Antolatzaileak / Organizan
***Donostia Kultur Aniztasuna / Diversidad Cultural, Mestiza Asociación Artística – Sociocultural, Donostia Kultura***

Laguntzaileak / Colaboran
***Laboral Kutxa, Alberdania, Pamiela-Kalandraka, Ediciones Ekaré, Blackie Books, Fondo de Cultura Económica y Radiodonosti***

## 26

**IRAKURKETA KLUBA**
CLUB DE LECTURA

### *Mintzoan Kux-Kux*

**IRAKURKETA SUSTATZEKO KLUBA**
CLUB PARA FOMENTAR LA LECTURA
**Haur Liburutegia Nagusia** / Biblioteca Central Infantil

**11:00**

*6-8 urte heldu batekin / 6-8 años con una persona adulta*



26

**SARI BANAKETA**
REPARTO DE PREMIOS

## *Txano eta Oscarren abenturak Ilustrazio lehiaketa*

*Concurso de ilustración Las aventuras de Txano y Oscar*

**SAN JERÓNIMO ARETOA**
**Liburutegi Nagusia** / Biblioteca Central

**12:30**



26

**FILM EMANALDIA**

## *Ponyo itsaslabarrean*

***Hayao Miyazaki***
Japonia 100'

**AIETE K.E.**
**Areto Nagusia**

**17:00 EU**

*Denontzat / Todos los públicos*

*Gaztelaniazko azpitituluekin / Con subtítulos en castellano*

Hayao Miyazakik ekoitzi eta idatzitako animazio-film japoniar hau *Sirenatxoa* ipuinan inspiratuta dago.

Esta película de animación japonesa producida y escrita por Hayao Miyazaki, está inspirada en el cuento de *La sirenita*.

## 26

**FAMILIAREKIN JOLASEAN**
**ILUSTRATZAILEAREKIN LANTEGIA**

### *Collage tailerra*

***Maite Rosende***

AIETE HAURTXOKOA
**17:00-18:30**

Izen-ematea (ekitaldia baino 10 egun lehenagotik) / Inscripción (desde 10 días antes del evento)
***haurtxokoa_aiete@donostia.eus***

*5-11 urte bitarteko haurrak heldu batekin / Niñas y niños entre 5-11 años con una persona adulta acompañante.*





### *Jolastu gaitezen ipuinak marraztera*

***Aitziber Alonso***

MARTUTENE HAURTXOKOA
**17:00-18:30**

Izen-ematea (ekitaldia baino 10 egun lehenagotik) / Inscripción (desde 10 días antes del evento)
***haurtxokoa_martutene@donostia.eus***

*5-11 urte bitarteko haurrak heldu batekin / Niñas y niños entre 5-11 años con una persona adulta acompañante.*

Antolatzaileak / Organizan
***Donostia Gazteria, Donostia Kultura***

26

**ANTZERKIA**
TEATRO

## *Grimm anaien parkea*

***Erre produkzioak***

**ERNEST LLUCH K.E.**
**17:00 EU**

*+3 urte / años*

***Gonbidapenak: 5 egun lehenagotik dagokion kultur etxean (gehienez 4 gonbidapen pertsona bakoitzeko)** */ Invitaciones: desde 5 días antes en la casa de cultura correspondiente (máximo 4 invitaciones por persona)*
*amarakulturetxea@donostia.eus*

*Grimm anaien parkea* keinuzko antzerki ikuskizuna da. Grimm anaien ipuinetako batzuk ditu erreferentzia: Errauskiñe, Txanogorritxo, Hansel eta Gretel, Loti Ederra, Rapunzel, Edurnezuri...

*Grimm anaien parkea* es un espectáculo de teatro gestual que tiene como referencia algunos de los cuentos de los hermanos Grimm: La Cenicienta, Caperucita Roja, Hansel y Gretel, La Bella Durmiente, Rapunzel, Blancanieves...



**ANTOLATZAILEA** / ORGANIZA

Donostia Kultura

**KOLABORATZAILEAK** / COLABORAN

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirola departamentua
Donostiako Udaleko Kultur Aniztasunaren eta Giza Eskubideen Bulegoa
Donostia Gazteria
Kutxa Kultur
Etxepare Euskal Institutua
Donostia Zinemaldia
Euskadiko Filmategia
Gipuzkoako Liburu-denden Elkartea

**AHOLKULARITZA** / ASESORÍA

Euskal Idazleen Elkartea

**BESTELAKO ELKARTE ETA ENPRESA KOLABORATZAILEAK**
OTRAS ENTIDADES Y EMPRESAS COLABORADORAS

Alfaguara
Cabaret Voltaire
Ediciones Destino
Elkar argitaletxea
Erein argitaletxea
Galtzagorri Elkartea
Fant Bilbao
Literatura Random House
Lumen
Mestiza. Asociación artística socio-cultural
Seix Barral

LITERAKTUM

**PARTE – HARTZAILEAK** / PARTICIPAN

**Héctor Abad Faciolince, Katixa Agirre, Jose Ignacio Agorreta, Jon Arretxe, Ylenia Benito, Itxaro Borda, Mireia Calafell, Jesús Carrasco, Teresa Castro, Joaquín Ciáurriz, Tadeo Ciáurriz, Borja Crespo, Luis Antonio de Villena, Andoni Egaña, Luisa Etxenike, Mitxel Ezquiaga, Virginia Feito, Elixabete Garmendia, Lander Garro, Itxaso Goitia, Ángeles González-Sinde, Miren Gorrotxategi, Ghost Number, Slawka Grabowska, Olga Grande, Alex Haro, Karmele Jaio, Aiora Jaka, Pello Lizarralde, Ainara Maia, Igone Mariezkurrena, Inko Martin, Leire Martinez de Marigorta, Miren Agur Meabe, Eduardo Mendoza, Ana Merino, MICE, Jon Obeso, María Oruña, Julia Otxoa, Eli Pagola, Leire Palacios, Irantzu Pastor, Pedro Pegenaute, Ruth Pérez de Anucita, Soledad Puértolas, Imanol Rayo, Uxue Razquin, Isaac Rosa, Oier San Martin, Beñat Sarasola, Jonathan Sedeño, Joserra Senperena, Lorenzo Silva, Abdellah Taia, Imanol Ubeda, Joanes Urkixo, Josune Urrutia, Carlos Vila, Gabriela Ybarra, Iban Zaldua, Patxi Zubizarreta.**

**Ezagutu itzazu parte-hartzaileak www.literaktum.eus webgunean*
*Conoce a los participantes en www.literaktum.eus*

**SALMENTA GUNEAK** / PUNTOS DE VENTA

ONLINE

www.donostiakultura.eus/sarrerak
dksarrerak@donostia.eus

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Argentina Errepublika, 2. / Tel. 943 481 818
vea_taquilla@donostia.eus

11:30-13:30 / 17:00-20:00

ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL

Kale Nagusia, 1 bis. / Tel. 943 481 970
az_taquilla@donostia.eus
**Astelehenetik ostiralera** / De lunes a viernes / **11:30-13:30**
**Ikuskizuna dagoen egunetan** / Los días de función / **11:30-13:30 / 17:00-20:00**

LITERAKTUM